

2013-09-24ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko irailaren hogeita lauan, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainara Mugika Iruretagoyena, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Yosu Yurrita Loitegui, Tomás Etxeberria Sarasola.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2013-07-23).- 2013ko uztailaren 23ko ezohizko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2013ko 96. zenbakitik 158. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2014KO TOKIKO JAI OFIZIALA IZENDATZEN DUEN ALKATE-DEKRETUA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.

143/12 zk. duen 2013ko irailaren 10eko alkate-dekretuaren berri eman da:

“Iruran, bi mila eta hamahiruko irailaren hamarrean, eguerdiko ordu batean, udaletxeko bulego ofizialean, eta neronek, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusinek, korporazioko idazkariak lagunduta, Ainhoa Ugalde Gorostiaga bere gain hartu du alkate lehendakaritza eta zera dio:

2013ko uztailaren 19an argitaratu da EHAAn Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2014. urteko jaiegunen egutegia onartzen duen dekretua. Joan den urtean bezala, tokiko jaietako beste egun bat izango da lan ondorioetarako, ordaindu egingo da eta ez da errekueratu beharko. Enplegu eta Gizarte Saileko lurralde ordezkariak zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako udalbatzek proposatuta.

Hori ikusita, eta presazko arazoak direlako, ebatzi behar da jai egun hau.

Horregatik hau

EBAZTEN DUT:

1. -2014rako Irurako tokiko jai egun ofiziala hau izatea:
- Irailaren 29a, San Migel eguna (Astelehena).

2.- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko lurralde ordezkariari Dekretu honen jakinarazpena bidaltzea eta datorren osoko bilkuran ere Dekretu hau sartzea, hala badagokio, berresteko.”

Hori dela eta, udalbatzak aho batez berrestea erabaki du.

Gai hau bukatu ondoren, Yosu Yurrita zinegotziak bilera utzi du.

LAUGARREN GAIA

2013ko UDAL JAIEN EGITARAUUA ETA AURREKONTUA ONARTZEA.

2013ko Irurako udal jaietako egitaraua eta aurrekontua aurkeztu dira. Hauen gastua 47.691,58 eurokoa izango da eta sarrerak 7.930 eurokoak.

Kultura Batzorde Informatiboak 2013ko uztailaren an egindako bileran onartu zuen proposamena.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA

2013ko udal jaietako egitaraua eta aurrekontua onartzea.

BOSGARREN GAIA
ZAHARREN BILTOKIKO EGOITZA BERRIKO OBRAREN LIKIDAZIOA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

“Zaharren Biltokiko egoitza berria egokitzeko” obraren likidazioa aurkeztu da. Construcciones F. Aierbe S.L. enpresari esleitu zitzaion 179.986,22 euroko aurrekontuarekin, eta obrak amaitu dira 171.826,99 eurotan.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzorde Informatiboak gaur egindako bileran onartzeko proposamena egin du.

Hori ikusita Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA

Aipatu den obraren likidazioa onartzea.

SEIGARREN GAIA
TRINKETEKO BIRMOLDAKETAREN 2. FASEKO OBRAREN
LIKIDAZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

“Trinketearen birmoldaketaren 2. fasea” obraren likidazioa, aurkeztu da. Construcciones F. Aierbe S.L. enpresari esleitu zitzaion 72.635,95 euroko aurrekontuarekin, eta obrak amaitu dira 77.435,44 eurotan.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzorde Informatiboak gaur egindako bileran onartzeko proposamena egin du.

Hori ikusita Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA

Aipatu den obraren likidazioa onartzea.

ZAZPIGARREN GAIA.
“IRPH” DELAKO INTERESARI MOZIOA ONARTZEA, HALA
BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“**Motibazioa.-** Pasa den 2012ko apirilaren 28an, banku bezeroen Babes eta Gardentasuna bermatzen duen 2899/2011

“**Motivación.-** El pasado 28 de abril de 2012 entró en vigor la Orden Ministerial 2899/2011 de transparencia y protección de los

Ministerio-Agindua indarrean jarri zen, bertako 27. artikuluan ondorengo urteetako hipoteka-maileguen interesak zehaztuko dituzten indizeak jasotzen dira.

Aipatutako artikuluan, erabiltzen egon diren indize batzuk eta sortu berri diren beste indize batzuk aurkitzen dira, bestalde, jasotako indizeen artean azken urteotan garrantzi handia izan dituzten indizeak; Kutxen HMEI-a, Bankuen HMEI-a eta EAKK azaltzen ez direla ikus dezakegu.

Hala ere, aipatutako Ministro-aginduaren Xedapen Iragankorrek ezartzen du 27. artikulua horretan jada zehaztuta agertzen ez diren indizeak behin betiko desagertuko direla agindua argitaratzen denetik urtebetera, baldin eta dagokion indizea ezartzen baldin bada.

Horrek zera esan nahi du, desagertu beharreko indizeen desagertpena errealia izan dadin, Gobernuak, Dekretu edo Ministerio Agindu bati esker, desagertuko diren indizeak dituzten eta beraien klausuletan ordezkorik begiesten ez dituzten etxebizitza maileguetan ezarri beharko den ordezkotako interes mota finkatu behar duela.

Kutxak onarturiko hipoteka-mailegu kopuru garrantzitsu batek indizetatzat HMEI-a du, eta ordezkotako indizetatzat Euriborra + 1 ezartzen dute. Legez ezarritako dagoen aldaketa honek, familia ugariaren egoera

clientes de servicios bancarios, que en su artículo 27 recoge los índices para la determinación de los intereses de los préstamos hipotecarios de los próximos años.

En el citado artículo encontramos la desaparición de índices que ya venían siendo utilizados, otros de nueva creación, y observamos la desaparición de índices que han tenido una gran relevancia en los últimos años, caso del IRPH Cajas, IRPH Bancos, y CECA.

Sin embargo, la Disposición Transitoria de la citada Orden Ministerial establece que la desaparición definitiva de los índices que ya no aparecen recogidos en el mencionado artículo 27 se producirá transcurrido un año desde su publicación, siempre y cuando se establezca el correspondiente.

Quiere ello decir que para que la desaparición de los índices llamados a desaparecer sea una realidad es necesario que desde el Gobierno se publique un Decreto u otra Orden Ministerial en donde se fije el tipo de interés que deberá aplicarse en aquellos préstamos hipotecarios cuyo índice desaparece y no tienen contemplada una alternativa en su clausulado.

Una importante cantidad de los préstamos hipotecarios concedidos por Kutxa vienen referenciados al IRPH Cajas, y contemplan como índice alternativo en caso de

ekonomikoari arnasaldi bat emango lioke, hilabete eta mailegu bakoitzeko 300 edo 400 € bitarteko aurrezpena eragingo lukeelako.

Baina Gobernuak ez du behar den behin behineko erregimena finkatu, eta ondorioz familien kalte eta erakundeen onurarako, Kutxen HMEI-a mugagabeki luzatuko da.

Gobernuak behin behineko erregimena ez ezarri izana, ez da ahazte kontua izan, hausnarketa eta interesen azterketa baten ondorioz hartutiko erabakia baizik. Horrela, erakundeentzako onuragarria den eta familientzako erabat kaltegarria den egoera mantentzea aukeratu dute.

Horrexegatik, Tolosako Kaleratzeak-Stop Kolektibotik, zera eskatzen dugu:

-Ekonomia Ministerioari, honen utzikeria tamalgarriaz kexu, berak ezarri behar duen behin behineko erregimena ahalik eta lasterren finkatu behar duela gogorarazi nahi diogu, honek Kutxen HMEI-aren erabateko desagertzea eragingo baitu. Honek izugarrizko garrantzia du, batez ere garai hauetan, datozen murrizketek familietako ekonomietan, are eta desoreka handiagoa eragingo dutenean.

-Kutxabanki, honen hipoteka bakoitzaren klausuletan agertzen denaren arabera, Kutxen

desaparición el Euribor más 1%, una alternativa que significa un importante alivio para la economía de miles de familias ya que representa un ahorro del orden de 300 a 400 euros mensuales en un préstamo medio.

Sin embargo, desde el Gobierno no se ha establecido el necesario régimen transitorio, lo que significa que el IRPH Cajas se prolongará indefinidamente con el consiguiente perjuicio para las familias y beneficio para las entidades.

Que el Gobierno no haya establecido el régimen transitorio no es un olvido, es una decisión derivada de una reflexión y una ponderación de intereses. Y Así han optado por mantener una situación beneficiosa para las entidades y muy lesiva para las familias.

Por ello, desde Stop Desajustos Tolosa solicitamos:

-Instar al Ministerio de Economía, lamentando su interesada desidia, a establecer lo antes posible el régimen transitorio que permita que la desaparición del IRPH Cajas sea una realidad, y más en un momento en el que los futuros recortes salariales van a propiciar un todavía mayor desequilibrio entre los ingresos y los gastos de las economías familiares.

-Solicitar a Kutxabank la inmediata sustitución del IRPH Cajas por el índice que en cada

HMEI-aren berehalako ordezkapena eskatzea. Honetarako ez du behin behineko erregimenaren ezartzea gauzatu arte itxaron behar, berauen edukia garrantzirik gabekoa baita.”

caso contemple el clausulado de los préstamos hipotecarios sin esperar al establecimiento de un régimen transitorio cuyo contenido le resulta irrelevante.”

Hori ikusita, eta aho batez, udalbatzak zera erabaki du:

ERABAKIA

Mozio hau onartzea eta dagozkion erakundeei jakinaraztea.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute aho batez batzarkideek, eta hauek, udalbatzarrean, partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute.

ZORTZIGARREN GAIA

AMETSA UDAL TRINKETEKO TABERNAREN KONTRATUA LUZATZEA.

Ikusita epea igaro dela, zerbitzuaren kudeaketa eta entzunaldirako epea eman zaiola kontratistari eta berarekin adostasun batera iritsi garela.

Visto el periodo transcurrido y la gestión del servicio y el periodo de audiencia concedido al contratista y de acuerdo con él.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak gaur egindako bileran proposamena onartzea erabaki du.

La Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios en sesión celebrada el día de hoy ha decidido aprobar la propuesta.

Ametza Udal Trinketeko tabernako zerbitzuaren prestazioa hasi zenetik ia urtebete igaro da.

Ha transcurrido prácticamente un año desde que comenzó la prestación del servicio de Bar del Trinkete municipal Ametsa.

Ordutik hona, eta udal zerbitzuen arduradunekin eta erabiltzaileekin hitz egin ondoren,

Durante este tiempo, una vez conversado con los responsables de los servicios municipales y los

honakoaz ohartu gara:

usuarios, se ha observado lo siguiente:

1.-Trinketeko instalazioak zaintzeari dagokionean, eta Baldintzen Pleguen arabera, zainketa egokia izan dela adierazi behar dugu.

1º.-En lo que respecta al cuidado de las instalaciones del trinkete, de acuerdo con el pliego de condiciones, la prestación ha sido adecuada.

2.-Kontratuaren alderdi ekonomikoari dagokionean, eta idazkari kontu-hartzailearen txostenaren arabera, kanonaren erdia baino gutxiago ordaindu da.

2º.-En la parte económica del contrato y de acuerdo con el informe del Secretario-Interventor se ha abonado menos de la mitad del canon.

3.-Agian emakidadunak denbora gehiago beharko du zerbitzura egokitzeko.

3º.-Puede ser que el concesionario necesite más tiempo para adecuarse al servicio.

Horren ondorioz, Udalbatzak honako hau erabaki du aho batez:

Ante ello, la Corporacion acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ERABAKIA

ACUERDO

1.- Probaldia beste sei hilabetez luzatzea, zerbitzua emateko emakidadunaren gaitasuna ziurtatzeko.

1º.-Prorrogar el periodo de prueba otros seis meses más, para establecer con claridad la capacidad del concesionario para prestar el servicio.

Epe hori bukatuta, Udalak behin betiko erabakia hartuko du: kontratua 4 urtez luzatzea, edo probaldia ez duela gainditu adieraztea eta kontratua ebaztea.

Una vez concluido el mismo, se tomará por el Ayuntamiento la decisión definitiva: conceder el contrato por un periodo de 4 años o declarar no superado el periodo de prueba y resolver el contrato.

2.- Bestalde, ez da kanonaren salneurria aldatuko epealdi berrian.

2º.-No se aumentará el precio del canon para este nuevo periodo.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute aho batez batzarkideek, eta hauek, udalbatzarrean, partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute.

BEDERATZIGARREN GAIA

AZKEN ERASOA SEXISTA DELA ETA, IRURAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Adierazpen Instituzional hau aurkeztu da:

“Aurreko igandean, goizeko 04:30ean, Irurako festetatik bueltan Anoetarako bidean izan zen eraso sexista dela-eta, Irurako Udalak gaitzespen eta salaketarik irmoena egin nahi du batetik, eta bestetik, elkartasuna eta babesa adierazi nahi dizkie eraso jasandako emakumeari zein bere familia eta hurbilekoei.

Zoritxarrez, igandekoa ez da kasu isolatua, ez baita inondik ere lehen aldia horrelako gertaera lazgarri eta koldarra ematen dena, uda honetan bertan beste saiakera bat ere izan baita. Horregatik, eraso sexista eta genero indarkeria gizarte guztiaren arazo delako, erasoen eta indarkeriaren aurkako kontzientzia aktiboa izatea ezinbestekoa dela deritzogu.

Halaber, beharrezkoa da emakumeen aurkako eraso sexistez gizarte eragile zein norbanakoen artean eztabaida soziala piztea, eta denon artean erasoekin amaitzea. Gizarte patriarkatu batean bizi gara eta eredu matxistak non nahi daude, igandekoa eredu horren gertakizunik bortitzena besterik ez delarik. Horregatik, Irurako Udalak argi du tinko eutsiko diola indarkeria matxistaren eta emakumeen kontrako sexu-erasoen aurka borrokan jarraitzeko hatutako konpromisoari.

Hori guztia dela-eta, haxe azpimarratu nahi dugu adierazpen instituzional honen bidez:

-Hasteko, gure begirune, besarkada eta gertutasun osoa adierazi nahi dizkiegu eraso jasan duen emakumeari, bere senide eta lagunei. Ez gaude prest eskualde honetako emakumeen aurkako eraso hauen aurrean isilik eta geldirik gelditzeko.

-Horrelako gertaerek ez dute gure mespretxu guztia besterik merezi. Horregatik, Irurako Udalak argi adierazi nahi du bere esku dagoen guztia egingo duela gertaera hau argitzeko eta gainontzeko erakundeei ere gauza bera eskatzen die.

-Irurako Udalak eragile, komunikabide zein herritarrei eskatzen die, gaiak berak duen larritasuna kontuan hartuta hitz egitea, arduraz eta tentuz hain zuzen ere.

-Indarkeria horren aurka borrokan jarraitzeko konpromisoa berretsi nahi dugu. Horretarako, sentsibilizazio, prebentzio eta hezkuntza arloan hainbat ekimen eta jarduera bultzatuko ditugu. Aldi berean, emakumeen

jabekuntza sustatuko dugu, beti ere kaltetutako emakumeekin, talde feministekin eta gaitz hori desagerrarazteko lanean diharduten erakunde sozialekin elkarlanean eta modu koordinatuan.

Amaitzeko, dei egin nahi diegu Irurako herritarrei eraso sexistaren kontra indarrak biltzera batetik, eta bestetik, emakumeen aurkako indarkeria-adierazpen guztiak salatzen. Hori dela-eta, azken erasoak arbuiatzeko eta gaitzesteko antolatutako ekintza orotan parte hartzeko deia luzatzen dugu.”

Hori ikusita, Udalbatzak honakoa erabaki du aho batez:

ERABAKIA

Aipatutako mozioa onartzea.

HAMARGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena **EGIAZTATZEN** dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA